

## **IKUSTEZIN BIHURTU**

### **Osagaiak:**

- + Marrazo baten puzkerra
- + Ur purua
- + Eulien esnea
- + Mutil baten burmuina (mutila oso azkarra izan behar da)
- + Brad Pitten muxu bat.

### **Prestakuntza**

Zure abesti gustokoena abesten duzun bitartean marrazoaren puzkerra lapiko batean sartu eta berotu. 5 minutu beranduago ur purua bota eta zuk bi listu bota lapikora. Utzi sutan ordu batez. Ordu hori pasa eta gero, ordu laurden batez erlojuen orratzen kontrako norantzan nahastu.

Gero euli bat hartu eta esnea jetzi (emea bada hobeto, arrek esnerik ez dutelako). Esnea ez bota uretara, gorde hozkailuan.

Joan hilerrira eta hildako mutiko baten burmuina hartu eta zatitu. Hau egin ondoren, lapikora bota eta utzi egun batez han.

Hurrengo egunean eulien esnea hoztuta bota eta hor bi orduz utzi. Azkenik, Brad Pitten muxua jarri gure ukendu solidora eta ukendua martxan jartzeko prest egongo da.

### **Ukendua nola erabili**

Ukendu solido hau, zure etxeko telebistaren gainean utzi eta hurrengo egunean 8:00etan puntu-puntuan bi muxu eman eta podereak gutxika-gutxika zuregana joango dira.

**MAITE SOLA**